

Krisiarekin estatuei xantaia egiten dieten abokatu horiek

Europaren eta AEBen arteko TTIP merkataritza libreko ituna negoziatzen ari diren honetan, Transnational Institute eta Corporate Europe Observatory erakundeek *Profiting for Crisis* (Krisia probestuz) dossierrean azaldu dute nola hartu dieten gaina estatuei eta herritarrei korporazio handiek eta hauen esku-makil diren abokatu bufeteek.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EDONOR MAKURRARAZTEKO GAI dira korporazio multinazionalak garai neoliberal hauetan. Alemaniako Estatu bera ere bai. 2011ko maiatzean Alemaniako Gobernuak erabaki zuenean 2022an itxiko zutela azken zentral nuklearra, ez parlamentuko gehiengoak eta are gutxiago karrikan Fukushima zela-eta haserre mobilizatu ziren herritarrek pentsatuko zuten erabaki horrengeatik isunak pagatu beharko zituztenik.

Baina egun gutxi behar izan zuen Vattenfall energi konpainia suediarren nuklearren *itzalketarik* 3.700 milioi euroko kalteordainak eskatzeko. Kontua jada ez da bakarrik datozen 100 edo 200 urte sortuko diren alemanek irentsi beharko dituztela azken urteotan konpainia elektrikoak aberasteko balio izan duten erregai erradioaktiboen hondarrak; orain gainera energia mota bati uko egiteko erabaki burujabea hartzeagatik kalteordainak behar dituzte pagatu.

Vattenfalleko exekutiboek badakite auzia irabazteko aukera handiak dauzkatela. Aurretik auzitara eramane zizuten Alemaniak ezarritako ingurumenaren aldeko arau berriak, eta lortu arauok “ahantztea” ikatzezko zentral elektriko baten baimena lortzerakoan.

Kasu hau eta gehiago kontatu ditu berrikitan John Hilaryk *Red*

Pepper aldizkari britainiar ezkertiarrean “*Capital courts: how corporations can hold governments to ransom*” (Kapitalaren auzitegiak: nola lortzen duten korporazioek xantaia egitea gobernuari) artikuluan. Hilaryk *The Poverty of Capitalism* liburuan aztertu ditu gisa bereko gehiago.

Legezko estortsio zuri mota hau indartzu etorri da azken 30 urteotan. *Bilateral Investment Treaty* (Alde biko Inbertsio Ituna, ABI) deitzen zaie kapitalak estatuei sendoenen ingurumen edo gizarte politikak desegiteko darabiltzan tresna horiei. Hilaryk lehenbizikoaren artean nabarmendu du 1959an Pakistanek eta Alemaniak sinatu zutena. Geroztik, eta batik bat 1990eko hamarkadatik ugaritu direlako, 3.200 baino gehiago omen dira.

Ezaguna da konpainia handiek leku batean negozioa eginez etekinak beste edonora eraman ditzaketela. Baina, gainera, ABI hauek beren hizki txipietan dakartenaren ondorioz, multinazionalen eta estatu baten artean eztabaida egonez gero ez dira herrialde horretako auzitegiak disputa ebatziko dutenak, bestelako sasi-azuzitegi internazional batzuk baizik.

“Arbitrajezko auzitegiok –dio Hilaryk– ez dira sasi-epaitegiak baino [*kangaroo courts*]. Arbitroek ez daramate aginte publikorik, herrial-

El Polvorín blogak plazaratu argazkian, Occidental Petroleum Corporation (*OXI* da bere izen komertziala) multinazionalaren kontra egindako protesta ekintza. “Aitortu egia toxikoak akziodunei” dio afixa batek, “Garbi ezazu Amazonian utzi duzun zabor toxikoa” beste batek. Ekuadorrek galdu egin zuen *OXI*ren kontrako eztabaida. Ezin deitu “auzi” Munduko Bankuak behatzez izendatutako abokatuak osatzen duten International Centre for Settlement of Investment Disputes (ICSID) horren jarduerari. Ekuadorrek, Boliviak eta Venezuelak dagoeneko ez dute onartzen. Aldiz, *Profiting from Crisis* liburuan altermundialistek salatzen dutenez, batzorde horrek eta beste arbitro pribatuak gero eta gehiago sartzen dute eskua Mendebaldeko estatuen kontra. Multinazionalak ondo pagatutako lege-armada darabilte, abokatu merkantilista ospetsuz osatua.

deetako auzitegiaren daramatena bezalako, aitzitik, merkataritza zuzenbidean berezitatutako abokatuak dira, *ad hoc* izendatuak eta enpresen alde egin dezaten ipini dituztenak. Auzitegiok ezkutuan biltzen dira eta arbitrook hainbeste jokabide okerretan harrapatu dituztenez, auzitegiok aldeko indarrek ere aitortzen dute sinesgarritasuna galdu dutela”.

Lege berrien kontrola

1997an Kanadako Gobernuak debekatu zuen gasolinak MMT gehigarria eramatea, osasuna kalteztzen zuelakoan. Ordurako indarrean zegoen Kanada, AEBak eta Mexikoren arteko merkataritza arautzen duen NAFTA itun famatua. AEBetako Ethyl Companyk erreklamazioa sarturik, bakeagatik Kanadak 13 milioi dolar pagatu behar izan zizkion, MMTren debekuan atzera egiteaz gain.

Hilaryren kontabilitatean, itunon orain arteko biktima nagusiak Amerikan egon dira. Argentinak 105 milioi dolar pagatu behar izan zizkion Frantziako Vivendi multinazionalari Tucuman eskualdeko ur zerbitzu pribatizatua berriro publiko egiteagatik. Arbitroei bost axola zitzairen tucumandarren %80 konpainiaren zerbitzu txarra salatu izana.



Ekueadorrek pagatu du orain arteko kalteordainik handiena: 1.700 milioi dolar Occidental Petroleum multinazionalari, nahiz eta arbitroek onartu legea urratu zuela.

Alderantzizkoa, alegia multinazionalak pagatu behar izatea, gutxitan gertatzen da. Ekuadorrek 19.000 milioi dolarreko kalteordainak erreklamatu zizkion Chevron yankiari, baina alferrik, arbitroek atzera bota zuten.

Orain Europa eta AEBak negoziatzen ari baitira beren TTIP proppioa, bien arteko merkataritza are gehiago liberalizatzeko, Transnational Institute eta Corporate Europe Observatory erakundeek *Profiting for Crisis* liburuxka plazaratu dute. Izan ere, TTIP berria baino lehendik ere

Europako estatuek sinaturik dauzkaten itunen ondorioak azaldu baitira. Krisia dela eta, orain arte Mendebaldeko korporazio handiek herrialde ahulagoei egiten zietena dagigute europarroi.

Zehazki Espainiak, Greziak eta Ziprek jasandako erasoak nabarmentzen dira *Profiting for Crisis*en. Grezia Postova Banka eslovakiarrak pertsegitu du, ordurako zaborbonotzat jota zeudenak erositzen negoziatzen egin eta gero, kalteordain bila. Gauza bera egin du Ziprekin Marfin Investment Group inbertsio funtsak, hondoa jo zuen Laiki Bank nazionalizatzeagatik.

Espainian aurkitu dute adibide hurbila. 22 inbertsio funtsak nazioarteko sasi-auzitegiotara eramane

dute Madrilgo gobernuak energi berriztagarrietan egindako murrizketengatik. “Murrizketok ekonomistek ere kritikatu dituzte, baina inbertitzaile atzerritarrek dira auzitegiotara jotzeko indarra duten bakarrak. Irabazten badute, lehendik krisiak kolpatuak diren Espainiako herritarrek pagatuko dute”.

Gerta liteke herrialde batzuek beren bankuak erreskatatu ostean orain atzerriko inbertsio funts espekulatzaileak ere erreskatatu behar izatea, Alde Biko Itunak direla eta.

Abokatu kabinete ospetsuek defenditzen dituzte korporazioen erreklamazioak: Allen & Overy, Herbert Smith Freehills, K&L Gates, Clayde & Co... eztabaidaren ondoren, hiru abokatz osatutako auzitegi pribatu batek ebazteko.

Europako Batzordearen konplizitatea daukate, zorren berregituraketak eta bankuak salbatzea berak sustatzen ditu, Alde Biko Itun berriak sustatzen jakinik aurrekoek zer nolako kalteak ekarri dituzten.

“Europar bezala AEBetan—diote *Profiting for Crisis*en— bankuen erreskateak jendearen haserre eragin du, eta ulertzekoa da. Orain premiazkoa da jendeari jakinaraztea inbertsio funtsen erreskate ari direla prestatzen eta nazioarteko merkataritzaren arauak aldatu behar direla”.

Hori altermundialisten asmoa. Bitartean AEBetako eta Europako agintariak prestatzen dute TTIP itun berria, korporazioek eta kabinete ospetsuetako abokatuak herritarren zintzurak hobeto estutu ahal ditzaten. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

